

# ZARAUTZ

## Familia giroan



### GUNEAK

- KOSTALDEAREN ZIRRARA
- BERDEGUNEEN ARNESA
- HERRIAN ZEHAR



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Magisteriazarango, Turismoa eta Lurralde Antzeketasun Departamentua



Zarauzko Turismo Bulegoa:  
Kale Nagusia 30, 20800 Zarautz - 943 830 990 - [www.turismozarautz.eus](http://www.turismozarautz.eus)

## KOSTALDEAREN ZIRRARA

### 1 HONDARTZEN ARTEAN ERREGINA ETA ERREGINEN HONDARTZA

Isabel II.a erreginaren bisiten ondotik Zarautz ezagun egin zenetik, bisitari asko erakartzen ditu bere hondartzak: hondartzen artean erregina eta erreginen hondartza.

### 2 ITSASERTZEKO PASEALEKU DOTOREA

Oinezko pasealeku luzea, zerbitzu askorekin. Besteak beste hauek aurkituko dituzu: haur-parkeak, ping-pong eta *teqball* mahaia, *skate park* bat eta kalistenia gune bat.

### 3 MOILA: TXOKO KUTTUNA

Zarauzko leku kuttunetako bat da, eta ez nirea bakarrik. Oraindik ere hurbiltzen naiz txalupak ikustera eta arroketa jolastera.

### 4 SURFAREN PARADISUA

Zarautz surfaren erreferentziakoa da Euskadin, eta urte osoan zehar praktikatzen da. Herriaren nortasunaren parte da! Surferako materialik ez baduzue edo ikastaroa egin nahi baduzue, hainbat aukera dituzue!



## BERDEGUNEEN ARNASA

### 5 MOLLARRIKO KARGALEKUA

Imajina al dezakezue itsasontzi bat arrokaren kontra jarrita? Gune hau minerala kargatzeko erabili zen! Bertatik itsasoaren eta kostaldearen bista zoragarriak izango dituzue.

### 6 IÑURRITZA BIOTOPOA

Hegaztiak ikustea gustatzen zaizuenentzat hauxe da toki egokia! Ur gazia eta geza nahasten den toki honetan landaredia berezia eta animalia ugari bizi dira. Gainera, pasabide bat dago dunen gainetik ibiltzeko.

### 7 VISTA ALEGREKO PARKEA

Parke zabal honek herrigunea eta natura lotzen ditu. Hainbat landare-espezie bizi dira, eta tirolina-gune bat ere badu. Parkearen muinoan dagoen Torreoi zuritik bista zoragarriak ikusiko dituzue.

### SANTA BARBARA ERMITA

Erromatar galtzada batetik iritsiko zarete bertara; galtzadari jarraituz, nahi baduzue, Getariaraino iritsi zaitezke oinez! Ermitatik herriaren bista zoragarriak izango dituzue.

### 8 ORIENTAZIO IBILBIDEAK

Familia abenturazaleentzako ezinbesteko jolasa! Hiru ibilbide egonkor dituzue aukeran, zailtasunaren eta luzeraren arabera.



## HERRIAN ZEHAR


### ALDE ZAHAR BIZIA

Zarauzko alde zaharra gune bizia da; denda, saltoki eta zerbitzu ugari ditu. Bisita itzazue gure plazak eta monumentuak!



### ESKULTUREN IBILBIDEA

4,1 kilometroko ibilbidea eskulturaz eskultura.



## OINEZKO IBILBIDE TEMATIKOAK

Ibiltzea maite baduzue, hona hemen zenbait ibilbide berezi:

### BALE-TALAIAK

Garai batean talaia horietatik ikusten zituzten ni bezalako baleak!

### ZUHAITZ BEREZIEN IBILBIDEA

Hiriguneko Zarautz eta bere mendialdea zeharkatuz.


### ITSAS-ONDAREAREN IBILBIDEA

Talaiak, ermitak, moila zaharra, mineral kargalekua...

## 9 GASTRONOMIA APARTA

### PINTXOEN AUKERA ZABALA

Dastatu gure pintxoak! Herri osoan zehar eta auzo guztietan topatuko dituzue tabernak.



### DASTATU IZOKI BAT!

Ez al duzue oraindik Zarauzko izozkirik dastatu? Herrian ditugun izozkitegietan zapore-aukera zabala aurkituko duzue.



### GOZOTEGIAK

Hainbat gozotegi daude Zarautzen, gosaltzeko, meriendatzeko, pasteltxoak, tartak...



### MERKATU TRADIZIONALA

Kalitate goreneko bertako produktu freskoak, herrian tradizioa kontserbatzen den erakusle!



## JOLASTUZ DESKUBRITU

### 10 AZKEN BALEA

Erronkak gainditu eta aukera guztiak desblokeatu web app honetan! Zarautz ezagutzeko modurik dibertigarri eta dinamikoena.



### 11 MARCO TOPO

Familiako txikiekin herriko hainbat gune ezagutzeko modu entretenigarria, galderak erantzunez eta erronka txikiak gaindituz.



### 12 HAUR PARKEAK

Auzo guztietan aurkituko duzue haur-parkeren bat: itsasertzeko pasealekuan, alde zaharrean, herrian zehar... Salbideko parke estalia gomendatzen dizuet euria egiten badu.



## ZUEN BISITA BOROBILTZEKO PLANAK

### ALOKATU BIZIKLETAK ZIZTU BIZIAN

Hainbat aukera dituzue bizikletak alokatzeko.

### ASTIKO PIKNIK GUNEA

Bertako mahaia eta parrillak urte osoan erabil daitezke. Erraz iritsi zaitezke oinez edo bizikletaz, bidegorritik.

### TENIS-PISTAK

Teniszaleak bazarete, Itxasmendi auzoan bi tenis-pista dituzue, denontzako irekita!

## FRONTOIAK

Herrian zehar eta inguruko auzoetan hainbat frontoi eta kirol pista daude.

## GOLF ZELAIA

Handicapa baldin baduzue, 9 zuloko ibilbidean jolasteko aukera izango duzue!



## MUSEOAK

Zarauzko Arte eta Historia Museoa Erdi Aroko nekropoli bat eta erromanizazio garaiko aztarnak ikusiko dituzue. Photomuseum, berriz, argazkilaritza eta zinema maite dutenentzat da.



## HAUR LIBURUTEGIA

Sanz Enea udal liburutegira bisita bat egitea derrigorrezkoa da! Liburu, musika eta filmak topatuko dituzue.

## UR EPELETAN BERATZEN

Zarauzko udal kiroldegiko igerilekua plan ezin hobea da hurrek gozatu dezaten, batez ere eguraldiak laguntzen ez duenean.

## GELA URDINA (escape room)

Narros jauregiko Gela Urdinaren kondairan murgilduko zarete ihes-joko honetan!


## PROBATU ESKALADA

Esperientzia izan ala ez, rokodromoan dibertsiorik ez da faltako!

## TXAKOLINAREN TXINPARTA


Txakolin-upategiko bisita gidatua. Bukaeran muztoa dastatuko duzue, eta helduek txakolina.

ONGI ETORRI  
EUSKARAREN BERRIRA!



## NON JAN

Herri osoan zehar taberna eta jatetxe eskaintza zabala topatuko duzue: terrazadunak, parrilladunak...



## NON LO EGIN

Hirigunean zein naturan ostatu aukera zabala daukazue. Aukeratu zuentzat egokiena!



## NON EROSI

Zarauzko merkataritza bizi-bizia da, eta mota guztietako saltokiak topatuko dituzue, familia osoarentzako aukerekin.

